



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 17a

111. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (11. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azter dezan zehapen-espeditente bat irekitzea Nafarroako laborategi klinikoak ekipo berriz hornitzeko enpresa esleipen-hartzaileari, eta hari kontratua ez luzatzea. Patxi Leuza García jaunak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Torturaren Prebentziorako Bartzordearen txostena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinen bidez Espainiako Estatuak zigortzen baita tortura salaketak ez ikertzeagatik. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerreko parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da probak egin ditzan gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloekin eta, halaber, aitortzen da munduan zehar egiten den lan desinteresatua. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da loteria zozketa berezi bat antolatzeko aukerari buruzko azterlan juridikoa eta bideragarritasun ekonomiko-finantzariokoa egin dezan. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateei ordain diezazkien hobari edo salbuespenengatiko konpentsazio gisa zor dizkien zenbatekoak. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak kurduen herriari elkartasuna eta babesa adierazten baitizkio biziraupenaren eta askatasunaren alde aurrera daraman borroka dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta UGT eta CCOO sindikatuak osaturiko Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak kontsulta-organo izateari utzi eta bilgune iraunkor eta erabakitzaile bihurtzeko arrazoiei buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Reyno Arena kiroldegiaren erabilerei, kudeaketa ereduari, aurreikusitako diru-sarrereri eta gastuei eta irekitze-datari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (20. or.).
- Galdera, 2014an hautetsi-lana dela-eta eginiko ordainketengatiko konpentsazioei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez eginiko txostenari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2014ko urriaren 8an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuari igorri dio foru lege proiektu bat, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea foru lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Sustapen Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun baliaduneko epea hasiko da eta 2014ko azaroaren 10ean, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dizkiote foru lege proiektuari.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena

ZIOEN AZALPENEA

I

Babestutako etxebizitzen eta haien eranskinen salmenta eta alokairuko gehieneko prezioa Nafarroako Gobernuak ezartzen du urtero, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan aurreikusitako formula aplikatuz. Prezio horiek urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko ezartzen dira, modulu ponderatuen eta ponderatu gabeen arabera; modulu horiek foru lege horretan zehaztu, eta artikulua horretan azaltzen den formula erabiliz kalkulatu dira.

2012ko abenduaren 18an, Kontuen Ganberak Etxebizitza babestuaren moduluari buruzko fiskalizazio-txostena egin zuen, 2005eko ekitalditik 2012ko ekitaldira bitartekoa, Nafarroako Parlamentuak eskatuta.

Modulua zehaztu eta eguneratzeari dagokionez, Kontuen Ganberak modulua eguneratzeko formula aztertze gomendia egin zuen, berri-kustean kontuan har zitezkeen, besteak beste, krisi ekonomikoaren egungo testuinguruak ekarritako baldintza sozioekonomiko berriak.

Arestian esan dugunez, Kontuen Ganberak 2012ko abenduaren 18an eman zuen bere txostena, eta etxebizitza babestuen gehieneko prezioek urtarrilaren 1etik aurrera izaten dituzte

ondorioak. Horregatik, Nafarroako Gobernuak, presako gaia zela ikusirik, urte berriarekin eta 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan jasotako formularen aplikazioaren ondorioz moduluak berriz igo zitezkeelako, berehala onetsi zuen abenduaren 28ko 2/2012 Foru Lege-dekretua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen, eta, halatan, etxebizitzaren prezioa izoztu zuen urte hartan.

Foru lege-dekretu hori baliozkotzeko arauzko tramitean zehar, Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen foru lege proposamen gisa tramitatzea, eta, erabaki haren ondorioz, maiatzaren 15eko 17/2013 Foru Legea onetsi zen, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen; arau horren bidez, etxebizitzaren prezioa 2013an izoztuta mantentzeaz gain, neurria 2014rako ere luzatu zen.

Horrela, etxebizitza babestuen prezioa ez da aldatu 2012., 2013. eta 2014. urteetan.

Nafarroako Gobernuak argi utzi du behin baino gehiagotan prest dagoela etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak zehazteko modua Parlamentuko taldeekin adosteko. Horregatik, 2014an gaudenez, eta urte honen amaieran ezarri behar direnez 2015ean aplikatu beharrekoa moduluak, foru lege honen xedea da modulu horiek zehaztea hurrengo urterako, eta etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak etorkizunean kalkulatzeko modua finkatzea.

Kontuen Ganberaren gomendioak aintzat hartuz, eta ikusirik, batetik, egungo formularen aurreikusitako erreferentziako adierazleetako batzuetan datuak ez direla eguneratu, eta, bestetik, adierazle horietan ez direla kontuan hartzen sustapen bakoitzaren eraikuntza arloko berezitasunak, erabaki da modulu kalkulatzeko ezarriko den sistemak kontuan hartuko dituela etxebizitza babestuen eraikuntzak eta sustapenak dituen egiazko kostuak, etekin tarte zentzuzko bat gehituta.

Formula horren helburu nagusia oreka lortzea da, xede publikoen –etxebizitza babestua eskuratzeko aukera– eta etxebizitza mota honen sustapenak eduki beharreko errentagarritasun ekonomiko egokiaren artean; formularen alderdi on hauek aipatu daitezke:

Formula berriak alde batera uzten du zenbait materialen eta lan-eskuaren kostuen aldaketa, kostu horiek ez baitute beti zehatz-mehatz jasotzen sustapenaren kostuetan izandako aldaketa orokorra.

Formula berria loturik dago sustapenaren kostu orokorrekin, eta aldagaietako bat exekuzio materialaren aurrekontua da; etxegilearen eta sustatzailearen kostu batzuk, berriz, finkotzat hartzen dira, eta haien multzoa konstante gisa ageri da formularen; beste kostu batzuk, azkenik, aldagaiak dira: lansari teknikoak, sustapenaren finantza kostuak, merkaturatze kostuak eta sustatzailearen etekina. Aldagai gisa hartzen diren kostuen urteko azterketak ezarriko du zein izanen den salmentako gehieneko balioa metro koadro erabilgarri bakoitzeko, eta horretatik aterako da moduluaren balioa.

Salmentako gehieneko prezioaren aldaketa exekuzio materialaren aurrekontuarekin lotuz gero, ez dira beharrezkoak izanen moduluaren aldaketa bereziak, eraikuntzan betekizun berriak ekar ditzaketen arau-aldaketek eragindakoak, aldaketa horiek sustapenetako exekuzio materialaren aurrekontuan islaturik agertuko baitira besterik gabe.

Horregatik beragatik, Nafarroan etxebizitza babestuen sustapenetan erabili ohi diren materialen kalitatea hobetu edo okerragotuko balitz, horrek zuzenean eragingen luke kasuan kasuko exekuzio materialaren aurrekontuen aldaketa, eta, horrenbestez, moduluaren balioarena ere.

II

Bestetik, foru lege honen xedea da Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra sortzea. Erregistro hori sortzeko beharra uztarturik dago Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legean jasotako aurreikuspenekin. Egun, Espainiako Gobernuak lehendakariak aurkeztutako konstituziokontarakotasuneko errekurtsoren ondorioz, foru lege horren artikulua askoren aplikazioa etenda badago ere, arau horrek Etxebizitza Hutsen Erregistroa sortzeko agintzen dio Nafarroako Gobernuari.

Baina Nafarroako Gobernuak askoz harago joan nahi duen helburuak ditu arlo honetan. Horretarako, Erregistro bat sortzeko asmoa du, eta bertan zentralizatu Nafarroako Foru Komunitatean dauden etxebizitzekin zerikusia izan dezaketen datu interesgarri guztiak. Interesa duen informazioa foru lege horren artikuluetan aletu eta xehatzen da; datu horietako bat da etxebizitza bat hutsik egoteko zantzuak izatea.

Era berean, Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorren lehentasunezko helburuetako beste bat da bere informazioan beste erregistro batzuetan dagoena integratzea, bai Foru Komunitatean dauden erregistroen kasuan (Lurralde Aberastasunaren Erregistroa edo eraginkortasun energetikoaren ziur-

tagirien Erregistroa) bai Estatuan daudenen kasuan (Birgaitzeari, Hiri-berroneratzeari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Lege onetsi berriaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako zentsuak, adibidez).

Dudarik gabe, Etxebizitzen Erregistro Orokorra informazio iturri nagusietako bat izanen da etxebizitzaren arloan erabakiak hartzeko eta politika publikoen diseinua egiteko. Erregistroan informazio kopuru handia gordeko denez, hainbat arlotan neurri eraginkorrak hartzeko bide emanen du, hala nola, egun dauden etxebizitzak birgaitu, berroneratu eta berritzearen arloan, eta herritarrek etxebizitza eskuratzeko aukerari dagokionez.

III

Horrez gain, foru lege honen bidez, hipotekaren ordainketari aurre egin ezinik ohiko etxebizitza galdu duten pertsonak babesteko, Nafarroako Gobernuak jorratu duen bidetik jarraitzeko asmoa du. Orain arte proposatu edo onetsi dira zenbait neurri arlo honetan. Neurri horiei foru lege honetan sartutakoa gehitu behar zaie orain, etxebizitza babestuek alokatzeko baremoan puntuazioa izan dezakeen kontzeptu berri bat erantsi delako. Horri esker, hipoteka betearazteko epaiketa bidezko edo epaiketaz kanpoko prozesu judizialen ondorioz ohiko etxebizitzatik aterazteko ebazpen judizial bat jaso duten pertsonen egoera zaila aintzat hartu nahi du Gobernuak, babestutako etxebizitza bat alokatzeko baremoan berariazko puntuazioa ematea onartzen baitu.

IV

Amaitzeko, foru lege honetan beste neurri batzuk ezartzen dira, prezio itunduko etxebizitzak desagertzea, adibidez. Babestutako etxebizitza mota hori Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean ere desagertu zen. Baina foru lege horrek, bederatzigarren xedapen iragankorrean, araubide iragankor bat ezartzen du, praktikan etxebizitza mota hau aurrerago ere eraikitzea ahalbidetzen duena. Halere, ikusirik zein den higiezinaren merkatuaren egungo egoera, prezio itunduko etxebizitzak saltzea ere nekeza izanik, beharrezkotzat jotzen da prezio itunduko etxebizitzaren existentzia ez luzatzea.

V

Aurreko guztia ahalbidetzeko, foru lege honek artikulua bat, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu bere edukia garatzeko.

Artikulu bakarra. Nafarroan Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean aldaketa hauek egin dira:

Bat. 10. artikulua 6. idatz-zatia kendu, eta artikulua horren 2. eta 5. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute aurrerantzean:

“2. Etxebizitzaren arloko kontseilari eskudunak finkatuko du babestutako etxebizitzaren eta haien eranskinen salmenta eta alokairuko gehieneko prezioa, foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat. Horretarako, salmenta eta alokairuko gehieneko prezioak finkatu aurretik, artikulua honen 5. idatz-zatian jaso den formularen ezarritako aldagaien balioak zehazteko beharrezkoak diren kontsultak eginen dira.

5. Moduluak urtero eguneratuko dira, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) salmentarako gehieneko balioa formula hau erabiliz kalkulatu:

$$VMu = ((1.27 + H/100) \times PEMu) / (0.755 - (F + Co + B)/100), \text{ hau da:}$$

VMu = salmentarako gehieneko balioa, babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

H = Obra proiektuaren eta zuzendaritzaren lan-sari teknikoaren kostua, exekuzio materialaren aurrekontuaren ehunekotan adierazia.

PEMu = Exekuzio materialaren aurrekontua, eurotan, metro koadro erabilgarri bakoitzeko. Hori kalkulatzeko, sustapen baten azalera erabilgarri osoa hauxe izanen da: etxebizitza eta garajeetarako erabiltzen diren azalera guztien batura eta tras-teleku eta lokaletarako erabiltzen diren %40.

F = Sustatzailearen finantza kostuak, salmentarako gehieneko prezioaren gaineko ehunekotan adierazia (VM)

Co = merkaturatzearen kostuak, salmentarako gehieneko prezioaren gaineko ehunekotan adierazia (VM)

B = Sustatzailearen etekina, salmentarako gehieneko prezioaren ehunekotan adierazia (VM)

Aldagai horiek zehazteko, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen publikoak hartuko dira kontuan lehentasunez. Era berean, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan kalifikazioa jasotzeko aurkezten diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenei buruzko datuak ere erabili daitezke. Horretarako, departamentuak eskatzen

ahalko die sustatzaileei aurkez dezatela obra amaierako ziurtagiria, edo formulan aurreikusitako aldagaiak kalkulatzeko interesekoak izan daitezkeen beste datu batzuk.

5.1 Modulu ponderatua.

Babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko balioa zehaztu ondoren, modulu ponderatua honela kalkulatu da: balio hori zati babes ofizialeko etxebizitzaren eta haien eranskinen salmenta eta alokairuko gehieneko prezioak (metro koadro erabilgarri bakoitzeko) zehazteko ezarrita dagoen koefizientea.

5.2 Ponderatu gabeko modulua.

Ponderatu gabeko modulua balioa modulu ponderatuaren balioaren ehuneko laurogeita hamaseikoa izanen da”

Bi. 25.1 artikuluar g) eta h) letrak gehitzen zaizkio, eta azken paragrafoaren edukia aldatzen da; hauexek dira testuak:

“g) 5 puntu, etxebizitza babestuaren eskaeraz zentsuan izena eman zuten egunetik azken 2 urteetan, hipoteka betearazteko epaiketa bidezko edo epaiketaz kanpoko prozesu judizialen ondorioz, ohiko etxebizitzatik aterarazteko ebazpen judizial bat jaso duten pertsonentzat.

h) 2 puntu, alokairuko etxebizitza batean bizi-tzeagatik, modu legalean, idatzizko kontraturik gabe, etxea beste norbaitek lagata edo partekaturik.

b), c), d), e), f), g) eta h) letretako puntuazioak ez dira metatuko eskabide bakar batean”.

Hiru. 65. artikuluar 27. idatz-zatia gehitzen zaio. Hauxe da:

“27. Babestutako etxebizitzaren sustapenean behin betiko kalifikazioa eskatzeko ezarritako gehieneko epeak ez betetzea, ez eta luzapenak ere, eman baldin badira, kontuan hartu gabe behin betiko kalifikazio hori lortzen den ala ez etxebizitzaren adjudikazio-hartzaileen eta erosleen eskubiak eta interesak baloratzean”

Lau. VII. titulu berria gehitzen da, honako edukia duena:

“VII. TITULUA

Nafarroako etxebizitzaren erregistro orokorra

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

75. artikulua. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra.

1. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra sortzen da, titularitate publikoarekin, izaera admi-

nistratibokoa eta etxebizitzaren arloan eskuduna den departamentuari atxikia.

2. Titulu honetan xedatutakoak eta hura garatzeko eman daitezkeen xedapenek arautuko dituzte Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorraren antolaketa eta funtzionamendua.

76. artikulua. Helburuak eta xedeak.

1. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra Nafarroako etxebizitzaren egoerari buruzko informazioa biltzen duen tresna da, eta helburu eta xede nagusi hauek ditu:

a) Erregistro bakar batean zentralizatzea Nafarroako etxebizitzari buruzko datuak.

b) Nafarroako etxebizitzaren egoeraren jarraipena egiteko tresna izatea.

c) Beste administrazio publiko batzuek beren eskumenak kudeatzeko behar dituzten datuak eskura ditzaketela bermatzea.

d) Politika publikoen zerbitzura dagoen tresna informatiboa izatea, foru lege honen 3. artikuluan ezarritako printzipioekin bat.

e) Etxebizitza arloko azterlan, proposamen eta proiektuak egiteko datu interesgarriak emateko bitartekoa izatea.

f) Nafarroako Gobernuaren etxebizitza arloko politika diseinatzeko behar den informazioa ematea.

g) Lur-ondasunen Erregistroarekin eta Nafarroako katastroekin koordinatzea eta elkar osatzea, bai eta Birgaitzeari, Hiri-berroneratzeari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen lehen xedapen gehigarrian zehaztutako informazio sistema orokor eta integratuarekin eta sortuko lirakeen beste batzuekin ere.

77. artikulua. Jarduketak.

Aurreko artikuluan ezarritako helburuak eta xedeak betetzeko, erregistroa kudeatzeaz ardura-tzen den organoak lan hauek egiten ditu:

a) Modu iraunkorrean, integratuan eta eguneratuan izanen du eskura erregistroko informazio guztia, foru lege honetan jasotako aurreikuspenekin bat.

b) Edozein administrazio publikok edo haren menpeko erakundeek emandako informazioa erantsiko du, erregistroaren kudeaketarako interesgarria baldin bada.

c) Lur-ondasunen Erregistroan eta Birgaitzeari, Hiri-berroneratzeari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen lehen xedapen gehigarrian zehaztutako informazio sistema orokor eta integratuan sartuko ditu eskatzen diren datuak.

d) Erregistroan dauden datu publikoei buruzko informazio publikoa eskuratzeko aukera bermatuko du, Foru Komunitateko Administrazioak horretarako ezartzen dituen bitartekoen bidez.

78. artikulua. Esparrua eta edukia.

1. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrean Nafarroako Foru Komunitatean dauden etxebizitzak sartuko dira. Horretarako, etxebizitzatzat hartuko da etxebizitzaren arloan aplikatzekoa den legeetan ezartzen dena.

2. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrean sarturik egonen dira, gutxienez, etxebizitza bakoitzari buruzko datu hauek:

a) Posta eta katastroko helbidea, azalera, adina eta kokapena, georreferentziatua.

b) Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroan titular gisa ageri den pertsona.

c) Bizigarritasun zedula edo agiri administratibo baliokidea.

d) Etxebizitzaren babes mota, babestua baldin bada, eta erabilera edo eskurapen araubidea.

e) Etxebizitzaren eraikinak Eraikinen Ebaluazio Txostenik duen.

f) Efizientzia energetikoaren ziurtagiria.

g) Etxebizitza erosi, alokatu edo zahar-berri-tzeagatik lortutako laguntza publikoak, baldin badaude.

h) Errentan emandako etxebizitza babestuen kasuan, datu hauek jasoko dira, gutxienez: etxebizitza errentan eman duen sustatzailearenak, errentariarenak eta onartu diren laguntza publikoenak.

i) Zantzuen arabera, hutsik dauden etxebizitzak. Etxebizitza hutsik egotearen zantzu horiek zehazteko, etxebizitzan inor errolaturik ote dagoen egiaztatzen ahalko da, edo bertan jarduera ekonomikorik betetzen ote den. Beste zantzu batzuk ere har litezke kontuan.

j) Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuaren iritziz interesa duten beste datu batzuk.

3. Etxebizitzen Erregistro Orokorra Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dauden datuekin sortu eta elikatuko da, bai eta beste administrazio publiko batzuetan eta haien menpeko erakundeetan har daitezkeenekin.

79. artikulua. Informazio publikoa eskuratzea.

1. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrean dauden datuetan publikoa den informazioa foru lege honetan ezarritakoak arautuko du.

2. Bereziki, informazio publikoa hauxe izanen da:

a) Etxebizitzaren posta eta katastroko helbidea, azalera, adina eta kokapena, georreferentziatua.

b) Etxebizitzak bizigarritasun zedularik edo agiri administratibo baliokide indardunik duen.

c) Etxebizitzaren babes mota, babestua baldin bada, eta erabilera edo eskurapen araubidea.

d) Etxebizitzaren eraikinak Eraikinen Ebaluazio Txostenik ba ote duen, eta hala bada, zein den haren emaitza.

e) Efizientzia energetikoaren ziurtagiria.

f) Etxebizitza erosi, alokatu edo zahar-berri-tzeagatik lortutako laguntza publikoak, baldin badaude.

g) Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak ezarritakoak, datuen babesa arautzen duten legeekin bat.

3. Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak eskura jarriko du artikulua honetan aipatzen den informazioa, ezartzen diren bitartekoak erabiliz.

80. artikulua. Datuen babesa.

1. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorri dagozkion fitxategiak arau hauei lotuko zaizkie: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalen babesari buruzkoa, eta 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, lege hori garatzen duen erregelamendua onesten duena. Aplikatu beharrekoa izanen da, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esku dauden datu pertsonalen fitxategi informatizatuak arautzen dituen uztailaren 26ko 143/1994 Foru Dekretuan fitxategi berrien sorrerari buruz xedatutakoa.

2. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrean fitxategiaren arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu teknika, kudeaketa eta antolamendu aldetik, datuen isilekotasuna, segurtasuna eta osotasuna bermatzeko, eta, halaber, behar diren neurri guztiak hartuko ditu ukitutako pertsonen beren eskubideak erabili ahal ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta aplikatu behar diren gainerako arauetan xedatu bezala.

II. KAPITULUA

Nafarroako etxebizitzen erregistro orokorra sortu eta zaintzea

81. artikulua. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, etxebizitzaren arloko eskumena duen

departamentuaren bidez, Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra osatuko du egun duen informazioa baliatuz, foru lege honen 78. artikuluan ezarritako edukiarekin, gutxienez, bat datorrena.

2. Etxebizitzak izan ditzaketen higiezinak identifikatzeko, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak bere artxiboetan eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan dauden datuak erabiliko ditu, eta, horretarako, haren laguntza eska dezake.

82. artikulua. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra zaintzea.

1. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorren zainketaren xedea izanen da bertan dauden etxebizitzei buruzko datuak mantentzea eta etengabe eguneratzea.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa arduratuko da egun Erregistroan dauden datuen zainketa egokiaz. Horretarako, ahaleginduko da integratzen, batetik, foru lege honetan xedatutakoaren arabera garrantzizko informazioa izan dezaketen datu baseak eta artxiboak, eta, bestetik, Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra.

3. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortu eta zaintzeko lanetarako beharrezkoa den informazioa elkarri emanen diete administrazio publikoek, beharrezkoak diren teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz, eta ez da beharrezkoa izanen datu pertsonalei dagokienez ukitutakoen baimena izatea.

4. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorren zainketaren arloan, Foru Komunitateko Administrazioari dagokio, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuaren bidez, honako lan hauek betetzea, oro har:

a) Erregistroan dauden datuak kudeatu eta eguneratzea etengabe.

b) Egund dauden datuak aldatzeko proposamenak jaso eta gainbegiratzea, Erregistroaren zainketa egokian laguntzen duten beste entitate edo pertsonen halakoak bidaltzen dituztenean.

c) Bere lana koordinatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo beste edozein administrazio publikoren beste organo batzuekin, Erregistroaren kudeaketarako interesa duten datuak izan ditzaketenean.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo beste edozein administrazio publikoren organoen laguntza eskatzea, Erregistroaren kudeaketarako interesa duten datuak izan ditzaketenean.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorreko datuetan interesa izan dezakeen beste edozein administrazio publikoren organoekin lan egitea.

5. Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio beharrezkoak diren neurri guztiak ezartzea, antolaketa mailakoak nahiz teknikoak, egiazkotasuna, konfidentzialtasuna, eskuragarritasuna eta zainketa bermatzeko.

83. artikulua. Laguntza eman beharra.

1. Pertsona natural edo juridiko, publiko edo pribatu orok du Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorri laguntzeko betebeharra, unitate administratiboak eskatuz gero, eta, horretarako, erregistroaren zainketarako eta mantentzerako behar diren datuak, txostenak edo aurrekariak emanen dizkio. Aurrekoa gorabehera, laguntza hori eskatzen ahalko da, soilik, behar-beharrezkoa denean, eskatutako datu, txosten edo aurrekariak ez daudelako Administrazioaren artxibo eta erregistroetan.

2. Administrazioak eta gainerako entitate publikoak, eta, oro har, eginkizun publikoak dituztenak behartuta daude Nafarroako Etxebizitzen Erregistroari erregistroaren zainketa eta eguneratze lanetarako beharrezkoak diren eta etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak, bai xedapen orokorren bitartez, bai eskaera zehatzei erantzunez, eskatzen dituen datu edo aurrekari garrantzizkoak ematera.

3. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako datu pertsonalak eman behar direnean ez da ukitutakoen baimenik beharko.

Lau. Hamabigarren xedapen gehigarria erantsi da. Hona hemen:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak eskuratzea.

Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarrietarako aurreikusitako edozein laguntza eskatzeak berekin ekarriko du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako ondorio eta bermeekin, eskatzaileek eta beren familia unitateko gainerako kideek etxebizitza arloko eskumena duen departamentuari berariaz baimena ematea eskatzeko, zuzenean edo zeharka, beste organo edo entitate publiko batzuen bidez, laguntza publikoak eskuratzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa, erregistrokoa dela, katastrokoa, ekonomikoa edo lan arlokoa, ondareari buruzkoa edo beste edozein.”

Bost. Hamahirugarren xedapen gehigarria erantsi da. Hona hemen:

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarrietarako laguntzak eta diru-laguntzak.

1. Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarrietarako laguntzak eta diru-laguntzak beren arauak zuzenduko dituzte.

2. Arautzea bat etorriko da, oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoarekin, eta berezitasunak ezartzen ahaliko dira emateko prozedurari edo kontrol, itzulketa edo zehapenen araubideari dagokienez”

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2015ean aplikatuko zaizkien moduluak.

1. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2015ean aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.246,53 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2015ean aplikatuko zaien modulu

ponderatu gabea 1.192,85 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak. Bereziki, indarrik gabe gelditu da Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen bederatzigarren xedapen iragankorra.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta etxebizitzaren arloko eskumena duen kontseilariari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Zenbait autonomia erkidegok kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zuzeneko zerga bat arautu dute azken urteotan. Zerga horren zergapeko egintza da kreditu-erakundeek hirugarrenen funtsak atzitzea, edozein izaera juridikotakoak, eta funtsak itzultzeko betebeharrarekin.

“Finantza-sistemaren funtzionamenduan efizientzia handiagoa bermatzen duen tratamendu fiskal harmonizatu bat ziurtatzeko asmoz”, Finantza publikoak sendotzera eta jarduera ekonomikoa bultzatzera bideratutako tributu-neurriei buruzko abenduaren 27ko 16/2012 Legearen 19. artikulua kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga sortu zuen, 2013ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, Espainiako lurralde osoan eska daitekeen zuzeneko zerga gisa, “Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean hurrenez hurren foruetako zerga-araubide diren ekonomia-itunari eta ekonomia-hitzarmenari kalterik egin gabe”.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikuluekin bat, Nafarroako zerga eta finantza jarduera hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautzen da, eta Nafarroak bere zerga-araubideari eusteko eta hura ezarri eta arautzeko ahalmena du. Uztailaren 15eko 25/2003 Legearen bidez onetsitako Hitzarmen Ekonomiko indardunaren 2. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena du hitzartutako ez bestelako zergak ezartzeko, baldin eta hitzarmenean bertan jasotako harmonizazio irizpideak eta printzipioak errespetatzen badira; besteak beste, solidaritate printzipioa, benetako zerga-presio orokorra Estatuaren gainerakoan dagoenaren baliokidea izatea, pertsonen joan-etorri eta kokatze askatasuna eta ondasunek, kapitalek eta zerbitzuek libreki zirkulatzeko Espainiako lurralde osoan, ondorio diskriminatzailek eragin gabe.

Xedapen horiek direla-eta, Nafarroako Parlamentuak apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea onetsi zuen, bertako lurraldean jarduten duten kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa.

Hala eta guztiz ere, zergaren diru-bilketarako ahalmena oso mugatua da, zeren eta 8. artikuluan zerga-tasa oso txikia onetsi baitzen.

Proposatzen den aldaketaren xedea da zergaren tasa igotzea eta, horrenbestez, haren diru-bilketarako ahalmena handitzea.

Artikulu bakarra. Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legeko 8.1 artikulua aldatzen da.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, Kreditu-entitateetako Gordailuen gaineko Zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legeko 8.1 artikulua ondotik ematen den testua izanen du:

“8. artikulua. Zerga-kuota.

1. Kuota osoa kalkulatu da zerga oinarriari ehuneko 0,3ko karga-tasa aplikatuz.”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamena. Proposamen hori batzorde sustatzaile batek aurkeztu zuen, zeinaren ordezkaria Pablo Sánchez González jauna baita, eta 2013ko abenduaren 17ko 147. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko **epe bat hasiko da, 2014ko azaroaren 10eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Lege proposamena. Proposamen hori batzorde sustatzaile batek aurkeztu zuen, zeinaren ordezkaria Ramón Morcillo Navaz jauna baita, eta 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko **epe bat hasiko da, 2014ko azaroaren 10eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan zehapen-espeditente bat irekitzea Nafarroako laborategi klinikoak ekipo berriz hornitzeko enpresa esleipen-hartzaileari, eta hari kontratua ez luzatzea.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuz García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan zehapen-espeditente bat irekitzea Nafarroako laborategi klinikoak ekipo berriz hornitzeko enpresa esleipen-hartzaileari, eta hari kontratua ez luzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Leuzak, foru parlamentari den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2012ko martxoaren 7an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileari baimena ematea abian jar zedin esparru-akordio bat Nafarroako laborategi klinikoak ekipo berriz hornitzeko. Gobernuak honako helburu hauek ezarri zituen: baliabideak arrazionalizatzea eta optimizatzea; langileen garapen profesionala bultzatzea; berrikuntza teknologikoa erraztea; segurtasuna

eta trazabilitatea areagotzea; balizko gastu-desbideratzeak kontrolatzea; prestazio-katalogo bateratu bat ezartzea, eta lagin-zirkuituak sinplifikatzea.

Abbot enpresaren aldeko esleipena 2012ko urriaren 24an egin zen, eta 12 hilabeteko epea eman zitzaion "Nafarroako laborategi klinikoen sendotze- eta bateratze-eredu bat ezartzeko, azken belaunaldiko teknologia dakarrena, kalitatea, efizientzia eta aurrezpena bermatuz". Abbot-ek kate oso, moderno eta efiziente bat eta kronograma xehakatu bat eskaini zituen, prozedura guztiak Nafarroako Laborategi Bateratuan zentralizatzea lortu artekoa.

Bi urte igaro dira, eta Nafarroako Laborategi Bateratuan zenbait irregulartasun, oker eta zentzugabekeria gertatu dira. Laborategietako profesionalekin egindako lan bileran nahiz kontseilariaren agerraldian egiaztatu ahal izan denez, epeen ez-betetze larria gertatu da, eta zenbait zerbitzu ez dira katean sartu. Kateak, gainera, ez dauka diseinu funtzional onik; hori dela-eta, konpontzen zailak diren arazoak gertatzen dira fase guztietan.

Laginak prestatzeko fasean, zentrifugoak ez dira egokiak eta prestaketa berandutzen dute. Gainera, ez baldin badute ongi zentrifugatzen, emaitzak okerragoak izan daitezke. Eta sarritan gertatzen dira buxatzeak, eta, ondorioz, atzerapenak emaitzetan. Atzerapena areagotu egiten da zenbaitetan, igorritako laginak banatzeko sisteman gertatzen diren akatsengatik; hori dela-eta, eskuzko konponketak behar izaten dira. Katearen luzeak laginak galtzea ere eragiten du.

Analisi fasean, orain erabiltzen diren teknikak lehen erabiltzen zirenak baino zaharkituagoak eta okerragoak dira; halatan, zenbait lan eskuz egin

beharra ere badago. Antzeko zerbait gertatzen da orain erabiltzen diren errektiboekin ere, lehengoak baino ezegonkorragoak baitira. Erabilitako sistema informatikoarekin lotutako arazoak ere detektatu dira: ez da egokia, konplikatuak dira programa ezberdinen arteko konexioak, eta akats ugari gertatzen dira.

Bestalde, okerra izan zen hasierako beharrian-aurreikuspena, eta zenbait ekipo handitu behar izan dira jada. Onetsitako sistemaren ezauzgarriak kontuan hartuta, etorkizunean ezin izanen da inolako ekiporik handitu sare honetan. Laborategiari atxikitako Abbot-eko teknikariak ez dira nahiko, gertatzen diren gorabehera eta matxura guztiak konpontzeko.

Orain arte egin izan diren kalitate-kontrolako prozesu batzuk egiteari utzi zaio, baliabide eta denbora faltagatik. Arratsaldeko plantilla handitu behar izan da, praktikan ezinezkoa delako lana goizean bukatzea. Azkenik, eskainitako langile-prestakuntza ez da bete, edo oso eskasa izan da, beharrezko baliabiderik gabekoa.

Gaixoak dira akats horiek guztiek gehien kalte-tutakoak. Halatan, adibidez, kontrol zorrotzagoen premia duten gaixoak (leuzemia dutenak, transplante bat egin zaienak eta abar), analisia egin eta goiz horretan bertan ikusten zirenak lehen, "larrialdietako analisiak" atalera igaro dira.

Horregatik guztiagatik, detektatutako akatsak eta ez-betetzeak ikusita, parlamentari honek honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du azter dezan zehapen-espedita bat irekitzea eta Nafarroako laborategi klinikoak errektibo, materialez eta beharrekiko ekipoz hornitzeko kontratua ez luzatzea enpresa esleipen-hartzaileari –Abbot Laboratorios– horren indarraldia bukatutakoan.

Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du bi hilabeteko epean beste proposamen bat egin dezan, errealista eta posibilista, honako hauek jasoko dituenak:

- Kronograma xehakatu bat, Abbot Laboratorios behartuko duena Nafarroako Laborategi Bateratuan prozedura guztien ezarpena normalizatzera.
- Laborategiak bateratzeko prozesuaren egiazko jarraipen bat, eta esleipen-kontratuan jasotako zehapen neurrien aplikazioa.
- Langileen prestakuntza eta garapen profesionala bultzatzea, lizitazioaren baldintza-orrietan aurreikusitakoari jarraikiz.

Iruñean, 2014ko urrian

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Torturaren Prebentziorako Batzordearen txostena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinen bidez Espainiako Estatuak zigortzen baita tortura salaketak ez ikertzeagatik.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen baititu Torturaren Prebentziorako Batzordearen txostena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia-

ren epaiak, zeinen bidez Espainiako Estatuak zigortzen baita tortura salaketak ez ikertzeagatik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-talde eta atxiki gabeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Torturaren Prebentziorako Europar Batzordeak 2013an txosten bat eman zuen ezagutzera, 2011ko maiatzaren 30etik ekainaren 13ra bitartean Espainiako Estatura egin zuen bisitan ateratako ondorioekin.

Txosten horrek jaso zuen hamar euskal herritarrek egindako tortura-salaketak oso sinesgarri eta sendoak zirela, eta ohartarazi zuen tratatu txar horien jatorria inkomunikazio-araubidean dagoela. Torturaren Prebentziorako Europar Batzordeak berak eta giza eskubideen esparruko beste nazioarteko erakunde batzuek eta gobernuz kanpoko erakundeek urtez urte ohartarazpen horiek egiten badituzte ere, Espainiako Estatuak ez ditu sekula kontuan hartu, eta horrelaxe jaso zuen beste behin Batzorde horrek bere txostenean, non Espainiako Gobernuari leporatzen baitzion tortura kasuak eragozteko inongo neurririk ez hartzea.

Batzordeak beste behin jakitera eman zuen Espainiako Estatuak ez duela jokabide horri behin betiko amaiera emateko borondaterik, torturatzailak modu sistematikoan babestu dituela eta babesten dituela eta errealitate horri buruzko salaketa oro eragozten duela.

Ildo beretik, urriaren 7an, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Estatura beste behin zigortu zuen tortura-salaketak ez ikertzeagatik. Oraingoan, Beatriz Etxebarriaren kasuari –2011ko martxoan Guardia Zibilak Bilbon atxilotua– eta Oihan Ataun gazte nafarraren kasuari –2008ko azaroan Espainiako Poliziak Zizur Nagusian atxilotua– buruz ari da.

Giza eskubideen arloko Europako erakunde gorenak, bi epaitan, agintzen du pertsona horiei kalte-ordainak ematea, Espainiako agintariak eraginkortasunez ez ikertzeagatik haiek salatutako inkomunikazio aldiko tratatu txarrak.

Epailak aipatzen dute bi kasuetan ikerketa eraginkorrak egin beharrekoak zirela demanda-egileek inkomunikaziodun atxilotetan pairatutako kalteberatasun-egoera zela-eta, eta ez zela halako ikerketarik egin Estatuari gogorarazten diote garrantzitsua dela Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeak gomendatutako neurriak ezartzea; besteak beste, azterketa mediko-legala eta zaintza egokia egitea, "gehiegikeriak

saihesteko eta atxilotuen osotasun fisikoa babesteko".

Ez da hau Nafarroako herritarrek salatutako tortura kasu bakarra. Gaur den egunean, Audiencia Nacionalean 9 gazte nafar epaitzen ari dira SEGiko kideak izateagatik; horietako batzuek inkomunikazio aldian tratatu txarrak jasan zituztela salatu zuten. Gauza bera gertatu zen 2014ko ekainean absolbitutako 40 gazteen kasuan. Salaketa horietatik bakarra ere ez da ikertu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Torturaren Prebentziorako Batzordeak 2013ko maiatzean argitaratutako txostena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2014-10-7ko bi epaiak, zeinen bidez Espainiako Estatura beste behin zigortzen baita tortura salaketa bana ez ikertzeagatik, horietako bat Nafarroako herritar batena.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Torturaren aurkako Konbentzioan ezarritako printzipioak begiratzera eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berretsitako doktrina betetzera. Doktrina horrek, hain zuzen, gomendatzen du tortura salaketa guztiak zorrotztasunez ikertzea.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela herritarrek egindako tortura salaketak iker daitezela, bereziki nafarren salaketak, eta berrius daitezela inkomunikazio-egoerak eta tratatu txarrek akusazioak edo/eta epaiak baldintzatu ahal izan dituzten prozesu judizialak.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du indarrrik gabe utz dezan atxilotuta inkomunikatua eta babesgabatasuneko egoerak bideratzen dituen legedia, eta, betiere, berma dezan atxilotuen eskubide eta berme guztien errespetua, Amnesty International bezalako erakundeen txostenetan behin eta berriz eskatu bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten die torturak eta tratatu txarrak pairatu dituzten pertsona guztiei, eta bere konpromisoa agertzen du ahal den akordio zabalarekin bultzatzeko tortura eta tratatu txarren biktima izan diren pertsonen aitorpena eta ordaina.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Patxi Zabaleta Zabaleta, José Miguel Nuin Moreno, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da probak egin ditzan gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloekin eta, halaber, aitortzen da munduan zehar egiten den lan desinteresatua.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita probak egin ditzan gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloekin eta, halaber, aitortzen baita munduan zehar egiten den lan desinteresatua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eleudun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du probak egin ditzan ebola bezalako gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloekin, eta, halaber, gizon eta emakume askok munduan zehar horrelako egoeretan egiten duten lan desinteresatua aitortzen du; zehazki, Teresa Romerorena eta osasun-sistema publikoko profesionalena.

Orain dela gutxi jakin dugu Teresa Romero, zeina erizaintzako laguntzailea baita Madrileko Carlos III.a Ospitalean eta beste profesional batzuekin batera aita Manuel García Viejo artatu baitzuen, ebolaren birusak kutsatu zuela, ustez, ezarritako protokoloek huts egitean.

Administrazio publikoek auzi hau dela-eta sortzen ari diren galderei erantzun azkar eta argiak eman beharreko egoera dugu honako hau; hortaz,

ongi etorriak izanen dira egoera honi erantzuna ematen dioten protokolo egokiak edukitze aldera egiten diren ahalegin guztiak.

Ez da aski, ordea, protokoloak paratzea gure ospitaleetako eta oinarritzko osasun laguntzako kontsultategietako iragarki-oholetan. Gure ustez, funtsezkoa da gaixo sintomatiko bat artatzeko katean parte hartzen duten pertsona guztiek protokolo horiek egiaz ezagutzea eta berenganatzea.

Halere, horrek ez du esan nahi protokoloak guztiek ezagutze hutsarekin lana eginda dagoenik. Uste dugu funtsezkoa dela protokolo horiekin probak egitea modu praktikoa batez kate horren maila guztietan: oinarritzko osasun laguntza, laguntza espezializatua, garbiketako langileak, suhiltzaileak, anbulantziak, eta abar.

Hori dela-eta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako erabaki proposamen hau aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ebola bezalako gaixotasun biriko eta kutsagarrietarako jarduera-protokoloak berrikusi ditzan eta horiekin proba egokiak egin ditzan, bai oinarritzko osasun laguntzako zentroetan bai ospitaleetan, esku hartzen duten profesionalen –eta, ondorioz, nafar herritar guztien– segurtasuna ahal den gehiena ziurtatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak espresuki aitortzen du gaitz eta gaixotasun mota ororen aurka irabazi asmorik gabeko elkarte bidez munduko edozein bazterretan beren bizitza arriskuan jartzearaino borrokatzen duten pertsona guztien lan desinteresatua, bai eta osasun arloko profesional guztiena ere, zerbitzu publiko bat ematearren egoera konplikatuei aurre egin behar baitiete, beren bizitzak arriskuan jartzearaino.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi nahi die Teresa Romerori eta bere senitartekoei, eta laster senda dadin opa dio.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Eleduna: Roberto Jiménez Allik

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da loteria zozketa berezi bat antolatzeko aukerari buruzko azterlan juridikoa eta bideragarritasun ekonomiko-finantzariokoa egin dezan.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita loteria zozketa berezi bat antolatzeko aukerari buruzko azterlan juridikoa eta bideragarritasun ekonomiko-finantzariokoa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernua premiatzeko Sanferminetako zozketa bat egitearen interesa azter dadin, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Urte batzuetatik hona bizi dugun krisi sakonaren eraginez, gainbehera etortzen ari da geneukan bizikidetasun eta kohesio sozialeko eredua. Produkzio-eredu berri baterantz jo behar dugu, XXI. mendearen lehen bagoian jarriko gaituena, baina atzean inor utzi gabe.

Funtsezkoa da oinarrizko zerbitzu publikoak babestea. Eta, horretarako, behar-beharrezkoa da ziurtatzea behar adina diru-sarrera, bidezkoak, sortuko direla. Erreforma fiskalaren eztabaida oinarrizkoa da atal honetan, eta eztabaida horri oraintsu ekin zaio Parlamentuan.

Baina garrantzitsua da, halaber, hil ala biziko helburu horretan lagun dezaketen ekimen guztiak abiaraz ditzagun, xume-xumeak badira ere.

Eta hainbat hobe, baldin eta ekimen horiek gure eskumenen esparruan gara badaitezke eta gure talde-aldartea indartu badezakete.

Hemen proposatzen dena da Estatuko Gabonetako zozketa ezagunaren baliokidea bultzatzea Nafarroan, baina Sanferminetako festen amaierarekin batera. Sanferminetako Zozketa Berezia deienez.

Itxura batean ez litzateke zaila izanzen zozketa bat antolatzea, zenbait milioi euroko diru-bilketa garbia utziko lukeena ezarritako sariak eman ostean. Gabonetako zozketa tradizionaletik oso urrun dagoen data batean eginen litzateke, eta Sanferminen kariatara bisitari ugari egonen litzateke salmentei bultzada gehigarri bat emateko.

Lege esparrua kontuan hartzen badugu, hor dugu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.16 artikulua, zeinaren arabera Nafarroak eskumen osoa baitu joko eta apustuen arloan, salbu eta kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuei dagokienez. Azken horiek azaroaren 8ko 3081/2011 EHA Aginduak arautzen ditu, eta ez dira mozio honen xede.

Bestalde, eskumen hori Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen bidez garatu zen. Foru legearen 17.2 artikulua arautzen ditu administrazio publiko batek edo haren menpeko erakundeek antolatutako jokoak. 20.1 artikulua, berriz, zehazki definitzen du –ez dugu hemen hitz jasoko– loteria ausazko joko bat dela.

Estatuan, maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak jokoak arautzen du, autonomia estatutuetan xedatutakoa ezertan ere galarazi gabe. 4. artikuluan ezartzen da legeak izendatutako operadoreei erreserbatuta geldituko direla estatu mailako loteriak, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren titularrari dagokiola estatu mailako loteriak merkaturatzeko baimena ematea.

Azkenik, Estatuko legearen azken xedapenetan lehenak SELAE-Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietateari eta ONCE-Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari esleitzen die lege horretan araututako loteria jokoak merkaturatzea.

Sanferminetako loteriaren zozketa estatuko mailakoa ez den neurrian –foru erkidegokoa da–,

uste dugu ez dela beharrezkoa Estatuko legearen 4. artikuluan ezarritako baimena eskatzea, nahiz eta hori ez den eragozpen izanen Nafarroako Gobernuako zerbitzu juridikoek azpian dagoen administrazio-azua aztertzeke.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait azkarren egin dezan

azterlan juridiko eta bideragarritasun ekonomiko-finantzarioko bat, Sanferminetako festen amaiera-rekin bat etorrituz eginen litzatekeen loteria zozketa berezi bat antolatzeke aukerari buruzkoa, halako moduan non, azterlanaren emaitza aldekoa baldin bada, 2015ean egin ahal izanen baita lehen zozketa.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateei ordain diezazkien hobari edo salbuespenengatiko konpentsazio gisa zor dizkien zenbatekoak.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki entitateei ordain diezazkien hobari edo salbuespenengatiko konpentsazio gisa zor dizkien zenbatekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea ezta-baidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabai-datu eta bozkatzeko:

Nafarroako Gobernuak berak talde honetako kide bati idatziz emandako erantzunean aitortu zuen moduan –8-14/PES-00164 espediente–, Nafarroako Gobernuak Nafarroako udal ugari

ordaintzeke die 1.800.000 eurotik gora, hobari edo salbuespenengatiko konpentsazio gisa.

Jakina den bezala, kooperatibetako eta fundazioetako subjektu pasiboen hobari edo salbuespenengatiko konpentsazioak ekonomia jardueren gaineko zerga eta lurralde kontribuzioarengatiko tributuari buruzkoak dira; subjektu pasibo profesionalenak, berriz, ekonomia jardueren gaineko zergari buruzkoak (zergaren I. atala). Hauxe zioen, hitzez hitz: “orobat informatzen da erabilitako urte-antolamendua eskabideak Nafarroako Gobernuan jaso ziren ekitaldiei buruzkoa dela eta ekitaldi horri berari eragiten ahal diola, edo litekeena dela udalak espediente bakar batean sartu izana lau ekitaldira bitarteko konpentsazio-eskabideak.”

Izan ere, egoera hori parlamentu-egoitzan justifikatzerakoan –2014ko urriaren 9ko Osoko Bilkura–, Toki Administrazioeko kontseilariak aipatu zuen Nafarroako Gobernuak 4 urterainoko epea daukala toki entitateekin arlo honetan dituen zorrak ordaintzeko.

Halere, parlamentu-talde honek egiaztatu ahal izan duenez, ordainketa horiek ohikoa zena baino gehiago berandutzen ari dira, eta, halatan, toki entitateetan kexak eta kezka dira nagusi, Nafarroako Gobernuak, begi bistan dagoenez, zor dizkien baliabide horiek behar dituztelako.

Hori dela-eta, sortu den ika-mika eta Nafarroako toki entitateak estutzen dituzten baliabide-premiak ikusita, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toki enitateei 2014a bukatu aitzin ordain diezazkien hobari edo salbuespenengatiko konpentsazio gisa zor dizkien zenbatekoak.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak kurduen herriari elkartasuna eta babesa adierazten baitizkio biziraupenaren eta askatasunaren alde aurrera daraman borroka dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak kurduen herriari bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkio; bereziki, Rojaba-ko eta Kurdistanen hegoaldeko herritarrei, biziraupenaren eta askatasunaren alde aurrera daramaten borroka dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuak ISIS gidatzen ari den eskalada militarra salatzen du, zeinak lurralde kurdu hori mehatxatzen baitu eta populazio zibilarren exodo handia jada eragin baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio aldeko erantzuna eman diezaien laguntza humanitarioa eskatuz agintari kurduak egindako deiei.

4. Nafarroako Parlamentuak Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundeari (ESLE), Europar Batasunari eta agintari kurduei jakinaraziko die erabaki hau.”

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta UGT eta CCOO sindikatuek osaturiko Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak kontsulta-organo izateari utzi eta bilgune iraunkor eta erabakitzaile bihurtzeko arrazoiei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta UGT eta CCOO sindikatuek osaturiko Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak kontsulta-organo izateari utzi eta bilgune iraunkor eta erabakitzaile bihurtzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta UGT eta CCOO sindikatuek osaturiko Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak zergatik utzi dio kontsulta-organo huts izateari eta bihurtu da bilgune iraunkor eta erabakitzaile?

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Reyno Arena kiroldegiaren erabilerei, kudeaketa ereduari, aurreikusitako diru-sarrereri eta gastuei eta irekitze-datari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, Reyno Arena kiroldegiaren erabilerei, kudeaketa ereduari,

aurreikusitako diru-sarrereri eta gastuei eta irekitze-datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako Batzordean ahoz erantzuteko:

Orain dela gutxi, Gizarte Politiketako kontseilariak informatu zuen irailan jakinaraziko zirela Reyno Arena kiroldegiaren erabilerak, kudeaketa-eredua eta irekitzeko data.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu:

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du Reyno Arena kiroldegia irekitzea? Zer kudeaketa-eredu dauka aurreikusita? Zer diru-sarrera eta gastu aurreikusten ditu? Zer erabilera aurreikusten du kiroldegi horretarako?

Iruñean, 2014ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, 2014an hautetsi-lana dela-eta eginiko ordainketengatiko konpentsazioei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, 2014an hautetsi-lana dela-eta eginiko ordainketengatiko konpentsazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legeko 15.a) artikulua honakoa ezartzen du: baldin eta udalek alkate eta zinegotziei ordaintzen badiete, legeria orokorrari jarraikiz, denbora osoan edo partzialean hautetsi aritzeagatik, edo ematen

badizkiete bilkura-sariak, kalte-ordainak edo beselako pagamenduak, kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak direnak, udal horiek ekarpen bat jasoko dute toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsetik, ordain horien kostua kitatzeko.

Artikulu bereko d) letraren arabera, ordainketa behin eginen da, transferentzia arrunten funts orokorraren bigarren zatiarekin, jaso nahi duten udalek urte bakoitzeko urtarrilean alde aurretik eskatuta, eta eskabideari ekarpen honek aurreko ekitaldian izandako zenbateko eta xedearen ziurtagiria gehitu beharko diote, halakorik egin bazuten. Horrenbestez, foru lege bereko 13. artikuluan agindutakoarekin lotuta, hautetsi aritzeagatik egin dako ordainketengatik udalei dagokien ordainak 2014ko apirilaren lehenengo hamabostaldian egin behar zuten.

Jakina da ezen, parlamentu-talde gehienek bultzatuta, 20/2012 Foru Legeko 15. artikuluko g) letraren bitartez baldintza batzuk ezarri zirela, eta baldintza horiek ez betetzeak berarekin ekarriko lukeela udalentsako ordain horiek atxikitzea edo deuseztatzea. Hori zela eta, Nafarroako Kontseiluak irizpen bat eman zuen (9/2013 irizpena), non auzitan jartzen baitzen arau horren konstituzionaltasun nabarmenki zalantzazkoa. Ondoren, parlamentu-talde horiek (PSN, PPN eta UPN) ahaleginak egin dituzte katramila juridiko horri konponbidea emateko, aipatutako 15. artikuluko g) letrako lehen puntua aldatzeko foru lege proposamen baten bitartez, baldintza horiek finkatu eta zehaztekoa.

Azken ondorioa irailaren 25eko 17/2014 Foru Legea izan da, 20/2012 Foru Legea aldatzen

duena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean urriaren 3an argitaratua eta biharamunetik indarrean dagoena. Horren indarrez, ordain horiek ordaintzeari dagokionez, ez-betetze gisa joko diren jarduketan lau kasuak finkatzen dira.

Hori horrela, gaur den egunean, udalek ez dute oraindik ere jaso inguruabar normaletan duela zenbait hilabete jasota behar zuten diru-kopurua, eta horrek udalen diru-kutxetarako kaltea dakar eta, larriagoa dena, udalek oraindik ere ez dakite Nafarroako Gobernuak ordainduko ote dizkien jada egindako gastuei dagozkien kopuru horiek. Gure iritziz, Parte-hartze Funttsaren parte izateagatik, zuzenbidez dagozkie kopuru horiek.

Hori guztia kontuan hartuta, foru parlamentari honek ondoko galderak egiten dizkio kontseilariari:

1. Zein da 2014an zinegotzi aritzeagatik egindako ordainketen ordaina eskatu duten udalen zerrenda, eta zenbateko ordaina dagokio horietako bakoitzari?

2. Behin 17/2014 Foru Legea indarrean dagoela, Toki Administrazioiko Departamentuak zer epe du aurreikusia kopuru horien ordainketa egiteko?

3. Ba al du Departamentuak asmorik 20/2012 Foru Legeko 15. artikuluko g) letra aplikatzeko, eta, hala bada, zein toki entitateri eraginen die?

Iruñean, 2014ko urriaren 7an.

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez eginiko txostenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez eginiko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluko agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntzako kontseilariaren irailaren 22ko 88/2014 Foru Aginduan, zeinean jarraibideak ezarritzen baitira araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez eta deklaritzen baita horiek finantzatzerik ez dagoela, hitzez hitz aipatzen da Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak egindako txosten bat.

– Zer hitzekin eskatu zen txosten hori egin zedin?

– Zer organok eskatu zuen txostena?

– Zer irizpiderekin egin da txosten hori?

– Arlo guztietako testuliburu guztiak aztertzea erabaki eta agindu zen, ala ikasgai horretakoak bereziki eta soilik ?

– Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak egindako txosten osoa eta ukitutako argitaletxeek prestatutako alegazioak erantzunarekin batera igor dakizkigun eskatzen dugu.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

